

ONDAREA ETA NORTASUNA





HASIERA

“Zure Donejakue bidea, denon ondarea” heziketa-programaren oinarri diren eta hemen aurkezten dizkizuegun **ONDAREARI BURUZKO FITXAK** baliagarriak dira ikasleekin Santiago bideko kultur ondarearekin lotutako hainbat alderdi lantzeko.

Fitxen ordena Bideko etapen ordenaren antzekoa da. Fitxekin egindako lanetik ateratako ondorioak irekiak izango dira eta beste eduki tematiko batzuetan ateratako ondorioekin erlazionatu ahal izango dira.

Fitxak ez dira “erabilera-eskuliburu” bat. Ikasleen ezaugarrien eta interesen arabera, irakasleek gehien komeni zaizkien fitxak jarraibide gisa erabili ahal izango dituzte.

Fitxak honela egituratzen dira:

→ Hasiera batean, eta ideia-jasa gisa, irakasleak ikasleen hezkuntza-beharretara egokitu ditzakeen item batzuk proposatzen dizkizuegu. Helburua ez da ikasleek kontu bakoitzari erantzun bakarra ematea, baizik eta denon artean erantzun globalak bilatzea eta erantzun horiek irakasleak antolatutako talde malguetan elkartuta eztabaidatzea.

→ Planteatutako kontuei emandako erantzunak elkarri azaldu ostean, ikasitakoa osatzeko, **GURE PROPOSAMENA** atalean, irakasleak bai ikasgelan bai ikasgelatik kanpo egin daitezkeen hainbat jarduera aurkituko ditu.

Bai itemen bai jardueren planteamendua diziplinartekotasunean eta ikaskuntza kolaboratiboan oinarritzen da. Hortaz, ikasgelaren programazioetan sekuentziatu ahal izango direnez, fitxak curriculumeko ikasgai desberdinetan Donejakue bidea azaltzen duten eduki teorikoak ukitzen dituzten unitate didaktikoei itxiera emateko erabil daitezke.

Hemen aurkezten ditugun materialarekin egindako lanaren azken xedea Donejakue bideari buruzko sorkuntza artistikoko lanak sortzea izango da.

Bide ona opa dizuegu

Arestian azpimarratu dugun kultur ondarearen alderdi aipagarrietako bat da harekin identifikatu egiten garela. Beraz, hasiko ditugun etapa hauetan, ideia hori landuko dugu eta ikusiko dugu gizarteak ondarearen hainbat elementuekin identifikatzen direla.

Era berean, identitatearen gaia ondarearen bidez landuko dugu, **pertsona gisa identifikatzen gaituzten balioen transmisioaren ikuspegitik**. Izan ere, balio horiei esker, geure buruekiko kontzientzia propioa dugu.

NOLA IKUSTEN GAITUZTEN BESTEEK...

gure ondarearen arabera

Identitatea besteen aldean bereizten gaituzten ezaugarri propioen multzoa da. Ezaugarri horiei esker bereizten ditugu ikusten ditugun gauzak: pertsonak edota objektuak haien ezaugarri propioei esker ezagutzen ditugu.

Has gaitzeen dinamika erraz batekin, ondarea, kasu honetan arkitektonikoa, baliabide bereizle baliagarri bat dela ulertzeko.

Ondare mota honek kokapen zehatza izan ohi du. Erakutsi ikasleei eraikin eta monumentu batzuk. Aukeratu munduan, Europan, Estatuan eta, azkenik, autonomia-erkidegoan, probintzian edo herrian oso ezagunak diren hainbat adibide.

Monumentuak bezalako ondare-elementu ukigaiez gain, aurretik ezagutu ditugun beste motatako elementuak ere aukera ditzakezue, esaterako, ondare immaterialarekin lotutakoak: kultura batekin erraz erlaziona ditzakegun festak, jakiak edo ohiturak. Batzuetan, litekeena da hainbat herrialde edo autonomia-erkidegok elementu batzuk partekatzea. Ikusi ditugu dagoeneko zenbait adibide.

Gogoan dituzte?

Gehienetan, ondare-elementu horiek erabilera jakin bat dute, ez dira arreta pizteko eraiki edo sortu. Hala ere, gaur egun, banaka edo osorik hartuta, herrialde baten kulturaren isla dira eta besteek haien bidez identifikatzen gaituzte herri gisa. Halaber, gure kultur ondarearekin identifikatzeko gaitasunari esker gara garen bezalako herria.

Ikasleen ustez, zein ondare-elementuk irudikatzen dute zuen herri edo hiria?

Arestian eskatu genien ikasleei haiek identifikatzen dituen elementu bat aukeratzea.

Hori al da kanpoan elementu ezagunena edo herritik kanpoko pertsonen hobekien ezagutzen dutena?

Gure I. proposamena: Zenbaitetan, gauza bat imajinatzen dugu baina oker gaude...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...



Donejakue bideak ere baditu identifikatzen duten hainbat sinbolo.

Ezagutzen al dituzte ikasleek Bidea identifikatzen duten eta harekin berez loturik dauden elementuak?

Segur aski, ikasleek elementu esanguratsuenetako batzuk ezagutuko dituzte, besteak beste:

Bieirak / Gezi horiak / Erromesak / Santiagoko gurutzea /
Kuiadun bastoia / Erromes-egiaztagiria / Compostela agiria /
Apostoluari besarkada ematea / Done Jakueren urtea / ...

Aipatu ez dugun baten bat bururatu zaie?

Askotan, esperientzia pertsonal baten ondorioz, elementu zehatz batzuekin identifikatzen gara eta litekeena da horiek elementu ezagunenak ez izatea: gauza bat zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta gehiago aldentzen gara topikoetatik.

Ba al dakite ikasleek zer den topiko bat? Ezagutzen dituzte Espainiarekin edo beste herrialde batzuekin erabiltzen diren topikoak? Zeintzuk dira ikasleek Bidearekin erlazionatzen dituztenak?

Gauza bera gertatzen da pertsona bat ondo ezagutzen dugunean, eta ez besteek hari buruz esaten dutenaren arabera.

Horrelakorik gertatu al zaie noizbait?

Haiei herri edo hiriaren gainean topiko asko daude? Zergatik izan daiteke hori?

Bideko elementu esanguratsuetatik ikasleek ezagutzen ez dituztenak, haiek aukeratutako moduan, ezagutzera animatzen zaituztegu.

Gure II. proposamena: Bidera hurbiltzean burura etorri zaizuen lehen gauza bieirak, gezi horiak...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Taldeak identifikatzailatzat jo dituen elementuak erreferente kulturalak dira eta gizarte guztiok ditugu horrelakoak. Erreferente horiek gabe, ez dakigu ezer gure iraganari buruz eta, iraganik gabe, identitatea galduko genuke. Izan ere, istripu baten ondorioz, oroimena galtzen duten eta haiei buruz ezer ez dakiten pertsonak nor diren eta nondik datozen jakiteko informazio bila hasten dira.

Gauza bera gertatzen da ondarearekin: nondik gatozen eta nor garen azaltzen digu. Ondareak egiten gaitu eta, iraganik gabe, ezin dugu etorkizunerantz aurrera egin.

("Ondarea eta memoria fitxan" argibide gehiago aurkituko duzu)

Ikasleren bat ez bada zuen herri edo hirian jaioa, eska iezaiozue besteen aurrean bere jaioterria deskribatzeko. Zein elementu nabarmentzen ditu besteen gainean?

Gogoraz iezaietzue ondarea ez direla soilik hiri edo herri bakoitzeko monumentu garrantzitsuenak; ondare immaterialaren elementuak (hala nola festak eta gastronomia) funtsezko forma identifikatzaileak dira ere.

Kultur ondareak jaio eta hezi garen tokiarekin erlazionatzen gaitu: gure etxearekin, gure oroitzapenekin elkartzen gaitu.

Gure III. proposamena: Donejakue bidearekin lotutako ondare arkitektonikoa elementu adierazgarrienetako bat da...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Garrantzitsua da ikasleek zera ulertzea: sarri askotan kanpora begira identifikatzen gaituen ondarea guk geuk esportatu nahi izan duguna da, hau da, adostasunez gure kulturen ohiz kanpoko eta sinbolikotzat jo ditugun eta besteei erakutsi nahi izan dizkiegun elementuak.

Guk geuk garrantzia ematen diogunez, beharrezkoa da ondare hori zaintzea eta babestea eta, era berean,

zabaltzea, hurrengo belaunaldiek ezagut eta errespeta dezaten. Ezin dugu onartu kanpokoek ondare baliotsu hori guk baino hobeto ezagutzea edo guk geuk ondarea ez errespetatzea. Horrenbestez, ondarea aintzat hartzen, babesten eta baloratzen ez duten gizarteek, azkenean, identitatea galtzen dute.

("Ondarea eta kontserbazioa fitxan" argibide gehiago aurkituko duzu)

Gure IV. proposamena: Ondo ezagutzen duzu zure herri edo hiria? Nolakoa izatea nahiko zenuke?...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...


Ondareak kanpora begira identifikatzen gaituela ikusi ondoren, nabarmendu dezagun **barnera begira** ere identifikatzen gaituela. Gizabanakoek identifikatzaile gisa hautatzen ditugun ondare-elementuak gure nortasunaren parte edo osagai bihurtzen dira.

Pertsona gisa garatzen laguntzen diguten tokiak gure kontzientzia moral, intelektual eta espiritualaren oinarria dira. Garenaren kontzientzia inguruan dugun ondarearekin osatzen da. Gogoan izan, dagoeneko azaldu dugun bezala, ondarea elementu ezberdin askok osatzen dutela.

Beharbada, orain, "Ondarea eta kontserbazioa fitxari" beste esanahi bat aurkituko diogu eta konturatuko gara ondarea zaintzea, "objektu baliotsuak babestea ez ezik", geure izaera propioa defendatzea ere dela.

Hortaz, ondarearen ezagutza eta balioa, ez soilik materiala, adin txikietatik lantzeak, gure kulturak eta hark transmititzen dituen balioak babestuz, gure identitatean sinestera eta hura defendatzera eramango gaitu. Kontuan hartu **ondareak balioak ere transmititzen dituela**.

Azter dezagun hori elkarrekin.



ONDAREAK... *elkartzen gaitu*

Ikusi dugu ondareak identifikatzen gaituela eta besteengandik bereizteko balio digula, baina, batez ere, elkartu egiten gaitu. Nola liteke hori talde edo komunitate bakoitzak besteengandik bereizten duen kultur ondare propioa badu?

Hain zuzen, kultur ondareak aniztasunetik elkartzen gaituelako.

Gure inguruko komunitateak identifikatzen dituzten ondare-elementuak ezagutzeak kulturen arteko elkarriketa eta besteekiko errespetua sustatzen ditu; horri esker, hainbat balio eta sentimendu partekatzen ditugu beste gizabanakoekin, eta horrek pertsonen arteko kontaktua, hots, elkartasuna, bultzatzen du.

Ezagutzen dugun ondarearen elementu bakoitzak (dibertsitatea sekulakoa da) erakusten digu ez garela bakarrik munduan eta ezerk ez digula eskubiderik ematen hobeak garela pentsatzeko. **Besteen ondarea baloratzen** ikastea **ondare propioa baloratzen** ikastea bezain garrantzitsua da. Irakasle gisa, zuen erantzukizun garrantzitsuena, ondarearen ezagutzaren bitartez, ikasleengan kulturen arteko errespetua, miresmena, tolerantzia eta elkartasuna sustatzea izango da.

Kultur ondareak eskaintzen dituen hezkuntza-aukera horiek direla bide, Europako Parlamentuak eta Europar Batasuneko Kontseiluak 2018a **Europako Kultur Ondarearen Urtea** izango zela adostu dute.

Hauexek dira ekimenaren helburuak:

- Europako kultur ondarearen trukea eta balorazioa sustatzea;
- Historia eta balio komunen inguruan sentsibilizatzea;
- Europako esparru komun bateko kide izatearen sentimendua indartzea.

2018 
**AÑO EUROPEO
DEL PATRIMONIO
CULTURAL**
#EuropeForCulture

<https://www.mecd.gob.es/cultura/mc/a-europeo-patrimonio-cultural/presentacion.html>

Ikasleen iritziz, zeintzuk dira europar guztiok, historia eta balio komunen bitartez, elkartzen gaituzten ondare-elementuak?

Donejakue bidea horren adibide aparta da.

Europako Kontseiluak 1987an izendatu zuen lehen Kultura Ibilbidea da. Bereizgarri garrantzitsu hori zenbait balio garrantzitsu biltzen dituzten ibilbide eta bideei ematen zaie.

Europako Kultura Ibilbideak Europako Kontseiluaren ekimenez sortu ziren, Europako herritarren eta kultur ondarearen arteko lotura estutzeko asmoz. Donejakue bidearen gainean, zera esan zuen Europako Kontseiluak:

“Mendeetan zehar, erromesek tradizio berriak, lengoaia berriak eta bizimodu berriak ezagutzeko aukera izan dute eta identitate kultural aberats bat eraman dute etxera itzultzean; hori benetan harrigarria zen distantzia luzeko bidaietan bidaiariak arrisku handiak hartzen zituen garaian. Donejakue bideko ibilbideek Europako historiaren ia mila urte sinbolizatzen dituzte eta kultur arloko kooperazio-eredu bihurtu dira Europa osoarentzat”.

Ikusi genuen bezala, ondareak pertsona gisa eragiten digu eta ondarearen balioek gure nortasuna eraikitzen dute; izan ere, ondareak gizartea eralda dezaketen gaitasunak transmititzen ditu.

Europako Kultura Ibilbideei buruzko informazio gehiago aurkituko duzue esteka honetan:

<https://www.coe.int/es/web/cultural-routes/all-cultural-routes>

**Ikasleen aburuz, zein balio transmititzen ditu gizartean errotuen dagoen ondareak?
Zertan oinarritzen dira hori esateko?**

Errespetua / Justizia / Tolerantzia / Zintzotasuna / Erantzukizuna / Konpromisoa?

Horietako askoren arteko lotura estua da.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren esteka honetan, 2018 Europako Kultur Ondarearen Urtea aurkezten da eta kultur ondareak gizarteari ematen dizkion balioen gaineko hainbat ideia eskaintzen dira:

<https://www.youtube.com/watch?v=55qEiEBpUtl>

Ados al zaudete?

Ariketa erraz bat egingo dugu oso komuna den kultur ondare batek, **sukaldaritza tradizionalak**, transmititzen dizkigun balioak aztertzeko.

Seguruenik, ikasleek errezeta tradizional asko ezagutuko dituzte, baina ez dute jakingo nola prestatzen diren. Sukaldaritza tradizionala ondarearen identitate-alderdi esanguratsuenetako bat da.

Proposatu ikasleei gustatzen zaizen inguruko errezeta bat prestatzen dakien senide batekin arratsalde bat pasatzea, errezeta kozinatzen ikas dezaten. Errezeta prestatzeaz eta platera dastatzeaz gain, haien ustez, zein balio ikasi dituzte?

Errezeta prestatzen irakasten dienak ez die soilik kultura transmititzen, gauzak egiteko, bizitzeko eta gozatzeko modu bat, bizimodu osasungarri bat, irakasten die, kozinatzen duten pertsonetikiko sentitzen dutena adierazten, kozinatzea ekintza partekatua dela edota tokian tokiko jakiak kontsumitzea mundu iraunkorrako baten alde egitea dela irakasten die, besteak beste.

Ikasleak esperientzia hori bizitzera animatzen badira, prozesu osoa dokumentatu eta ikasgelan parteka dezakete.

Dakitenaren arabera, zein balio transmititzen ditu Donejakue bideak?

Hona hemen gizalegea adierazten duten hainbat adibide. Hala ere, ikasleek Bideari buruz jada dakiten guztia kontuan izanda, beste asko bururatuko zaizkie, seguru.

- Ordu luzez oinez ibiltzeak ibilbidea gurekin batera egiten ari diren ezezagunekin bizitzea dakar. Bidean elkarrikketa luzeak eta baita benetako adiskideak ere egin daitezke. Hortaz, garrantzitsua da ongi eta elkartzunez jokatzea, hau da, behar dutenei laguntzea.

- Erromes frankok etapa herri berean amaitzen dute eta plaza mugatuak dituzten aterpe publikoetan hartzen dute atseden. Aterpeetako oheak erromesei iritsi ahal esleitzen zaizkie, eta hauek dira bete beharreko arauak: lehentasuna izango dute muga fisikoak dituzten erromesek,

ondoren, oinez doazen erromesek, atzetik, Bidea zaldiz egiten duten erromesek, gero, Bidea bizikletaz egiten dutenek eta, azkenik, autoa bidelagun daramaten erromesek.

- Aterpeetan, instalazioekiko errespetua eta adeitasuna erakutsi behar da beti. Bertan lan egiten duten boluntarioek (ostatu-emaileak, jabeak, etab.) erromesak dira, ez enplegatuak, eta musu-truk lan egiten dute han: garbitzen dute, kozinatzen dute, lehen laguntza ematen dute, eta abar.

- Ibilbidean zehar zaborrik ez botatzen saiatzen dira erromesak; horregatik, erromes askok etapan zehar pilatutako hondakinak gordetzeko poltsak eramaten dituzte.

Esan dugu dagoeneko Donejakue bidea Europako Kultura Ibilbidea dela. Europako erakundeek 2018a Europako Kultur Ondarearen Urtea izango dela adostu dute, kultur ondarearen bidez, Europako esparru komun bateko **kide izatearen sentimendua** gogora ekartzeko eta indartzeko, betiere esparrua osatzen duten herrien kultura-aniztasuna errespetatuta.

Gogoan izan Europa osoa zeharkatzen duela eta dozenaka abiapuntu dituela.

("Fitxak Donejakue Bidea" argibide gehiago aurkituko duzu)

Gure V. proposamena: "Europa pelegrinazioan jaio zen", eta hori ez dugu guk esaten...

Joan fitxaren amaierara gehiago jakiteko...

Pertsona gisa garatzen garen heinean, talde handiago bateko **kide garela** ohartzen gara. Garrantzitsua da gure gazteak talde handiago bateko kide direla sentitzea, gizartearentzat beharrezkoa delako ez ezik, bizitzako erronken aurrean segurtasuna ematen digulako ere.

Barne hartzen gaituen talde horrek taldekideen arteko lotura afektiboekin eraikitzen diren ezaugarri eta berezitasun propioak (**ondarearen bidez ere osatzen direnak**) ditu. Taldeak elkarrekin bizitzeko arauak adostera eta onartzera bultzatzen gaitu, eta taldeko gainerako kideekiko elkartasun-sentimendua sortzen du.

Ondorioz, **taldeko kide izatearen sentimendutik gizarte-taldearekin identifikatzera** eta, are garrantzitsuagoa dena, **taldean parte hartzera iristen gara**. Zerbaitekin identifikatzen garenean eta geure sentitzen dugunean, haren alde jotzen dugu eta herritar aktibo bilakatzen gara.

Donejakue bidea egiten dugunean, Bidea geure egiten dugu eta harekin identifikatzen gara, herri eta mundu mailan. Bidea egiten duten herrialde ezberdinetako milaka pertsonak Bideak transmititzen dituen balioak ikasten dituzte eta familia handi bateko kide sentitzen dira. Bidea egitek Bideak zer esan nahi duen ulertzen laguntzen digu, eta horixe da zuen lanetan islatu behar duzuen.

Heziketa-programa honetan parte hartzen duten gazteek gizartean **parte hartzeko eta sozializatzeko inizatiba hartzea** funtsezkoa da herritartasun arduratsuaren oinarriak ezarri ahal izateko. Gazteek inguruko kultura-proiektuetan parte hartzen badute:

- Proiektuaren protagonista bihurtzen dira eta haien ikuspegia txertatzen dute, batzuetan irakasleonekiko hain desberdina dena.
- Helburu bera duten kanpoko pertsonekin harremanetan jartzen dira.
- Aldaketa eragin ditzaketen eztabaida eta adostasunerako guneak sortzen dira.
- Ingurunearekin konprometitzen dira eta besteen arazoekiko enpatia garatzen dute.

Parte-hartzearen bidez, gazteak haien izaera eta **identitatea** modulatu dituzten eskema etiko, jokaera- eta kultura-eskemetara hurbiltzen dira.

Gure II. proposamena: Astronomia

Bidera hurbiltzean burura etorri zaizuen lehen gauza bieirak, gezi horiak... eta erromesak izan badira, zerura begiratzea proposatzen dizuegu.

Donejakue bidearekin lotutako beste elementu bati buruz hitz egin nahi dizuegu: izarrak. Izan ere, sortu zenetik, Donejakue Bidea Izarren bidea izenez ere ezagutzen da.

Erdi Aroaz geroztik, Donejakue bidea pelegrinazio-bide garrantzitsuenetako bat izan da, Jerusalem eta Erromarekin batera. Europako bazter guztietatik Santiagora joaten ziren erromesak Esne Bidearen kokapenari erreparatuta gidatzen ziren bidea jarraitzeko eta Apostoluaren hilobira, Finis Terrae deritzon munduaren azken muturrera, heltzeko.

Baina, egia esan, Espainia ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen Donejakue bideak ez du Esne Bidea zehatz-mehatz jarraitzen, zeruko ibilbidearen proiektio bat balitz bezala, nahiz eta zati batzuetan bat etorri. Kondaira apaintzeko esaten da hori.

Zeruan Bidearen mapa ikusten dela dioen tradizioa hainbat gertakaritan oinarritzen da:

- Tradizioaren arabera, izar-arrasto batek lagundu zuen Jakue Apostoluaren hilobia aurkitzen.
- Compostela hiriaren izen bera, herritarren artean, Campus Stellae izar-zelaiekin erlazionatzen da.
- Halaber, Kode Calixtinoan (IV. liburua) irakur daitekeen pasarte honek tradizioa errotzen lagundu zuen: Apostolua Carlomagnor (ibilbidearen sustatzaileetako bat) agertu zitzaion eta Esne Bidea seinalatu zion Compostelara eta hobiratua zegoen tokira iristeko hura jarrai zezan.

Esne Bidea irudi izugarria da gau lasaietako zeruan. Izan ere, historian zehar, beste kultura askotan hamaika legenda iradoki ditu.

Horiek eta Donejakue bidearekin lotutako beste kondaira batzuk aurrerago jorratuko ditugu. Orain, Donejakue bidearen eta Esne Bidearen arteko identifikazioa ikasleekin astronomia-tailer bat egiteko aprobeztatzea proposatzen dizuegu. Curriculumeko edukiak heziketa-programarekin lotzeko beste aukera paregabe bat da hau. Tailerra era desberdinetan bidera daiteke. Aukeratu nahiago duzuen:

- Zientzia-ikuspegia, eguzki-sistema aztertzeko: osaera, mugimenduak, ezaugarriak...
- Kartografia, orientazio, koordenatu geografiko, ordu-eremu eta abarretan espezializatutako ikuspegia.
- Ikuspegi praktikoa, hainbat tresna (sestanteak, oinarritzko teleskopioak...) edo modelo (planisferioak, etab.) eraikitzeko.
- Ikuspegi historikoa, teoria kosmologiko ezberdinak eta historian zehar astronomiak izan duen eboluzioa ezagutzeko, astronomian aitzindariak izan zirenak ahaztu gabe.
- Edo ikuspegi poetikoa, unibertsoa eta Antzinaroa izar eta konstelazioekin lotutako izen eta elezaharren bidez esploratzeko.

Ikuspegia zein dela ere, jorratu honaino ekarri zaituen Izarren Bidearen gaia.

Gure III. proposamena: Giza espazioa

Donejakue bidearekin lotutako ondare arkitektonikoa elementu adierazgarrienetako bat da... Bideak zeharkatzen dituen herri eta hiri batzuetan.

Horregatik, proposatzen dizuegu taldeari Donejakue bidearekin lotutako monumentuen hainbat irudi erakustea. Ikusi ahala, Bidearekin erlazionatutako tokiak ezagutuko dituzte. Hemen ere kultur ondareak herri edo hiri bat identifikatzeko duen gaitasuna landuko dugu. (Heziketa-programaren Instagram kontua jarraitzen baduzue, irudi asko aurkituko dituzue)

Hona hemen ideia batzuk, zuen beharretara molda ditzakezuenak:

Santiago de Compostelako katedrala / Puente de la Reinako zubi erromanikoa / Obradoiroko plaza / San Millan de Yusoko monasterioa / Burgosko katedrala / Jacako gotorlekua / Santo Toribio monasterioa / ...

Bestetik, interesgarria izango litzateke arkitektonikoa ez den beste ondare mota batekin erlazionatutako elementuak erakustea:

Ohiz kanpoko hondartza edo naturguneak / Portuak / Garaiak / Santiagoko tarta / Pórtico de la Gloria izenekoa / Bieirak / Gezi horiak / ...

Gogoan izan, dinamika honen bidez, hauxe transmititu nahi dela: kultur ondarea kanpora begira gure identitatea osatzen duten elementuetako bat da.

Gure IV. proposamena: Gure ingurunea

Ondo ezagutzen duzu zure herri edo hiria? Nolakoa izatea nahiko zenuke?... Ondare ezagunena ez da nahitaez garrantzitsuena. Gure herri eta hirietan sarri bisitatzen ditugun eta gure eguneroko bizitzan garrantzitsuak diren beste gune asko daude, besteak beste: hiri handietako auzo jakin batzuk, parkeak, kultur guneak, ikastetxeak, lantokiak, aisia-guneak eta kiroldegiak. Gune horiek baloratzea gure ondarea baloratzeko beste modu bat da eta, herritar gisa, haiek hobetzeko erantzukizuna dugu. Ikus dezagun zer dioten ikasleek horri buruz.

Hasieran azaldu dugu identitatea besteen aldean bereizten gaituzten ezaugarri propioen multzoa dela; beraz, deskriba dezagun gure herri edo hiria. Hura ere bizirik dago eta aldatzen doa.

Hasi aurretik, animatu ikasleak hurrengo egunetan herri edo hiriari argazkiak ateratzera, nolakoa den antzeman dezaten. Argazkiak prest ditugunean, taldean lan egingo dugu:

- Nolakoa da herri edo hiria? Has gaitzen ezaugarri aipagarrienekin: itxura, fisionomia, eta abar. Zerbaitek bereizten al du? Zer pentsatuko luke herri edo hiria ezagutzen ez duen eta arrapaladan bisitatzen duen norbaitek?
- Orain jo dezagun xehetasunetara. Egin gogoeta zuen herri edo hiriaren gainean: ezaugarriak eta berezitasunak (handia edo txikia, itsasoa edo mendia, txukuna edo zikina, kutsatua edo garbia), imperfekzioak, eta abar.

Azter ditzagun xehetasunak: ba al dago gure herri edo hiriari buruz gehiago jakiteko aukera ematen duen xehetasunik? Beharbada hirigune motak, saltokiek, industriak, eraikinek eta abarrek herritarren xehetasunen berri emango digute. Arkitekturak erakutsiko digu nolakoa den hiri edo herri horretako bizimodua.

- Deskribatu mota ezberdinetako etxeak: harrizkoak, lastozkoak edo adobezkoak, zuriak, gorriak, beltzak, leiho handikoak, leiho txikikoak. Zergatik? Inguruak baldintzatzen du hori: lurzorua osoa, hotz-beroa, bizimodua (ganadua, etab.).

Gizakia inguruko baldintza gogorretara nola moldatu den erakusten duen kultur ondare aipagarri gisa, Cebreiroko etxe biribilak nabarmendu nahi ditugu. Izan ere, Frantses bidearen barruan, kultura-intereseko ondasuntzat jotzen dira.

Lugoko probintzian dagoen O Cebreiro erromesek, Galizian sartzean, aurkitzen duten Frantses bideko lehen gunea da. Bertan, jatorrizkoen eraikuntza-ezaugarriak dituzten lau etxe biribil daude.

- Azken galdera: Zer iruditzen zaizu osorik hartuta? Deskribatutakoen artean, zeintzuk dira gehien eta gutxien gustatzen zaizkizun gauzak? Zer aldatuko zenuke herri edo hirian ezin hobea izan dadin?

Denboraren poderioz, pertsonak itxuraz alda daitekeen bezala, herri edo hiriak ere. Pentsatu al dute hori ikasleek? Noren esku dago herri edo hiriaren aldaketa? Amaitzeko, gure ametssetako herri edo hiria deskriba dezakegu. Zergatik gustatzen zaie? Nola lortu genezake?

Ikasleek egin dituzten argazkiak “Ondarea eta memoria fitxan” proposatu genizuen jarduera baterako, herri eta hirien aldaketa jorratzen duena, erabil ditzakezu.

Gure V. proposamena: Europako ondarea

“Europa peleginazioan jaio zen”, eta hori ez dugu guk esaten... Ustez, Goethe idazle alemanaren aipu bat da. Guk hori abiapuntutzat hartuko dugu ikasleek esaldiaren esanahiaren gainean hausnartu dezaten eta, ondoren, bilatzen hasi eta egia ote den egiazta dezaten.

Ikasleen iritziz, zer ezkutatzen da esaldi horren atzean?

Esaldiak Donejakue bideak europarrok elkartzen gaituen kulturaren transmisio-bide gisa izan zuen eginkizuna nabarmentzen du. Donejakue bideak kontinente osoan osatzen zuen ibilbide-sareak herrien arteko truke kultural eta ekonomikoa garatu zuen. Salgaiak ez ezik, ezagutzak ere trukatzeko ziren: erromesek ezagutzak haien artean transmititzen zituzten bai Compostelarako bidean, bai bueltan. Horrek ulermena eta elkartasuna bultzatu zuen lehen erromes europarren artean.

Ikasleen ustez, zertan islatzen da kultur truke hori?

Bidaia horiek pentsaera komun bat sustatu zuten, eta balio komunak arkitekturan islatzen hasi ziren, bereziki katedraletan, hiriko bizitzaren erdigunean. Konturatu al dira ikasleak Bidean sakabanatuta dagoen ondare arkitektonikoa Europako hainbat herrialdetan aurki daitekeela eta beti antzekoa dela? Erromanikoa eta gotikoa, kultura europarraren ezaugarri nagusiak, Donejakue bidearen bitartez zabaldu ziren.

Izan ere, estilo erromanikoa Europako lehen hizkuntza komuna izan zen. Erdi Arora atzera egiten duen “lehen” Europak gaur egun kontinentea elkartzean duten balioak bere egin zituen: aniztasuna eta kulturen arteko ulermena.

Bururatzen al zaizkie ikasleei Europako beste herrialdeekin partekatzen dituzten beste ondare-elementu batzuk?

Elementu horietako batzuk bilatzea eta transmititzen dituzten balioak aztertzea proposatzen dizuegu. Fitxan aipatu dugun **Europako Kultura Ibilbideen** webgunean asko aurkituko dituzue. Horiek guztiak elkartasunaren, tolerantziaren, ulermenaren eta ezagutzaren ikur dira.

Azkenik, gaur egun, ikasleen aburuz, zein beste kultura-elementuak elkartzen eta identifikatzen gaituzte europarrok? Nola transmititzen dira? Zein balio dakartzate?